

1935

2026ko martxoaren 15 eta 22an - Udal hauteskundeak



**Biarritz,
nere taldea!**

Serge Blanco

www.sergeblanco2026.fr

mon équipe c'est Biarritz !

Serge Blanco



Aurkezten dizuedan proiektua zuetako askorekin azken hilabeteotan izan ditudan elkarrizketen emaitza da.

Datozen egun eta asteetan zuetako bakoitzarekin solasten segituko naiz, zuen entzuteko, zuekin trukatzeko eta eztabaidatzeko, nire urraspidearen funtsezko elementuak azalduz.

Hautagaitza hau ibilbide ugari emazte eta gizonez osatua izanen da. Horien engaiamendua ezaguna da eta pasio bakarra dute amankomunean: **Biarritz** gure Hiriari hauspo berri bat ematea baina aldi berean bere historia zainduz.

Biarritzeko auzapez gisa gure biharko hiria diseinatzeko ardura izanen duten taldeak batuko ditut. Nehork ez lezake komunitate baten etorkizuna irudikatu arduradun belaunaldi berririk gabe.

Ene urraspidea ez da gizon isolatu batena, ezta burukeria bat ere. Biarritzko haur baten hautagaitza da: San Martin auzokoa, Jules-Ferry eta gero Immaculée-Conception-eko ikaslea, Jeanne d'Arc de Biarritz eta Biarritz Olympique-eko jokalaria... **Hots, biarritzarren arteko biarritzar bat.**

**Un projet solidaire, partagé, humaniste,
écologique et culturel, à la hauteur
des attentes et des besoins de chacun.**

Gure hiriarentzako proiektu berria eraikitzeko xedea duen hiritar talde baten adierazpena da proposatzen dudana: proiektu solidarioa, partekatua, humanista, ekologista eta kulturala, biarritzar guzien igurikapen eta beharren neurriko proiektua.

Hiri hau maite dut, eta emanen dugun bultzada berriak etorkizuneko Biarritz zaindu, batu eta irudikatu beharko du.

**Protéger, rassembler et imaginer
le Biarritz de demain.**

Taldearekin gure hiriak gainditu beharko dituen hainbat erronkei aurre egingen diegu:

- etxebizitzaren eskuragarritasuna,
- mugikortasuna eta aparkatzea,
- eguneroko segurtasuna,
- **adinekoen** osasunerako sarbidea hobetzea, **gazteriaren** aldeko ekintzen indartzea, egiazko **kirol-osasunaren** eta **ongizatearen** politika bat,
- ekonomia-jarduera berriak hartzeko gaitasuna,
- turismo berritzaile baten bultzatzea,
- Jauregiko Hotelaren zaintzeko hitzartzea,
- gure nortasunaren indartzea,
- Euskal Elkargoan dugun kokapena eta Hego Euskal Herriarekiko harremanak,...(***)

Guzti hori, ordea, nekez lor liteke ezinbesteko hiru betebeharrak gabe: Hiriaren finantzak behar bezala eramatea, ekologia-trantsizioa asumitua eta hurbileko praktika demokratiko baten garapena, engaiamendu bertutetsuan eta hiritarren arteko egiazko partekatzean oinarriturik, biztanle guztiak erabaki guzien muinean emanik.

**J'ai un projet pour Biarritz et nos
quartiers pour créer les souvenirs
de demain.**

Badut Biarritz eta hiriko auzoentzako proiektu bat. Zuekin batera osatuko eta gauzatuko dugu, biharko oroitzapenak eraikitzeko bidean.

www.sergeblanco2026.fr



Ezagutu bere ibilbidea


Serge Blanco